LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Lehenengo Hiruhilekoa 2021

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honek, 2021eko lehenengo hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa 4

Lanbiden erregistratutako langabezia 5

Afiliazioa Gizarte Segurantzan 6

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 7

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) 8

Testuinguru Ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) datuak urte arteko % 2,9ko jaitsiera erakusten du 2021eko lehenengo hiruhilekorako eta -% 6,7ko hazkundea aurreikusten du 2021 urte osoari dagokionez

Eustaten datuen arabera, urteko lehenengo hiruhilekoan EAEko BPG-aren urte arteko aldakuntza-tasa -% 2,9koa izan da. 2020-2021 aldirako, EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenei dagokienez, krisi ekonomikoa ez da izango lehen uste bezain gogorra, baina susperraldia motelagoa izango da (+% 6,7), pandemiaren kutsatzeen boladen intentsitatearen ondorioz.

Izan ere, pandemiaren berragerpenak eta hura kontrolatzeko ezarri ziren murrizketek eragin handia izango dute turismoan, ostalaritzan eta kultura jardueretan; beraz, hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia gelditu egin baitzen urteko azken hilabeteetan. Zehazkiago adierazita, EAEko BPGa % 9,4 jaitsiko da 2020an. Susperraldia 2021eko bigarren hiruhilekoan iritsiko da, hazkunderik gabeko lehen hiruhilekoaren ostean; eta jarduera % 6,7 haziko dela aurreikusten da 2021ean.

Zehatzago esanda, barne eskariaren bi osagai nagusiek beherakada esanguratsuak izan zituzten 2020an, sektoreen azterketan gertatu zen bezala, non adar guztiak modu esanguratsuan erori ziren. 2021erako, BPGaren agregatu guztiek, eskaintzaren zein eskariaren aldetik, jarduera ekonomikoaren aurrerapenari ekarpen positiboa egitea espero da.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza , "Koiuntura DI-DA batean 2021-eko urtarrila" txostena

Espainia eta Euroguneko ekonomiei dagokienez, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspena +% 4,2koa da 2021 urterako, eta Españarakoa +% 5,5.



Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2021-eko urtarrila" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko % 0,6ko hazkundea izan du urteko lehenengo hiruhilekoan; +1.941 emakume eta -1.160 gizonezko

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** hazi egin da 2021eko lehenengo hiruhilekoan (781 pertsona gehiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 130.021 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko hazkundea % 0,6koa izan da eta urte arteko igoera % 1,4koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 1.941 pertsonatan hazi da emakumezkoen artean eta 1.160 pertsonatan murriztu gizonezkoen artean. Emakumez kasuan, erregistratutako langabe kopurua 72.283 pertsonatan kokatu da eta 57.738 pertsonatan gizonezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 35-44 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-602); ondoren, 25-34 urte bitartekoen artean (-284). Beste tarteetan hazi egin da langabetu kopurua: 45-54 adin tartean +342; 16-24 adin tartean +370 eta 55-64 adin tartean +955.

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Araba izan da langabetu kopuruan hazkunderik handiena izan duen lurraldea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 0,8; +171). Ondoren, Gipuzkoa (+% 0,7; +479) eta Bizkaia (+% 0,4; +131).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzerritarren kopurua % 3,4 hazi da eta bertako langabetu kopurua % 0,1 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 21.132 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 108.898 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera izan duen ikasketa maila bakarra unibertsitate ikasketak ditzutenena da (-% 3,1). Gainontzeko taldeetan hazi egin da langabezia: Lanbide Heziketakoko ikasketak dituzten pertsonen artean % 2,0 hazi da, oinarrizkoa ikasketak dituztenak % 1,0 Batxilergoko ikasketak dituztenak +% 0,02.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (I) Hezkuntza (-519); (ii) Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (-514); eta (iii) Janari eta edarien zerbitzuak (-401). Langabezia hazkundeak erregistratu dituzten jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Txikizkako merkataritza (+776); (ii) Egoitzetako laguntza (+674); eta (iii) Etxebizitzak langile enplegatzaile gisa (+276).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 955.061 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,4 gutxiago

EAEn 2021eko lehenengo hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 955.061 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino % 0,4 gutxiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 1,3 gutxiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren % 52a gizonezkoak dira eta % 48a emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (% 50,2). Gipuzkoan, % 33,5ekoa izan da eta Araban % 16,3koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 2.013 pertsonatan murriztu da afiliatu kopurua; Gipuzkoan -1.710 eta Araban -349.

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, lehenengo hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (% 17,6); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (% 14,0); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,2). 2021eko lehenengo hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Administrazio Publikoa (+1.709); (ii) Hezkuntza (+1.283); eta (iii) jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak (+508). Murrizketa handienak jasan dituzten jardueren artean, ondorengoak daude: (i) Osasun jarduerak (-3.394); (ii) Merkataritza (-2.627); eta Jarduera administratiboak (-1.045).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua % 0,3 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 68.837 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua % 7,2koa da, afiliatu autoktonoena %92,8koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa % 1,1 hazi da eta emakumezkoen afiliazioa % 0,8 murriztu. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa jaitsi egin da Araban (% 0,9) eta Gipuzkoan eta Bizkaian, ostera, igo egin da (% 0,1 eta % 0,9, hurrenez hurren).

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Lehenengo hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua % ,6 jaitsi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 178.827koa izan da

2021eko lehenengo hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 96.075koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 3,6 gutxiago. Sexuari dagokionez, gizonezkoen artean % 0,3ko murrizketa izan da eta emakumezkoen artean % 6,9koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen % 41,3k derrigorrezko ikasketak ditu, % 20,5ek Batxilergo ikasketak, % 20,0k unibertsitate ikasketak eta % 17,7k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2021eko lehenengo hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, % 28,9ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek jasan dute murrizketa kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 24 urte azpikoen adin tartea nabarmentzen da (-% 13,2).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen % 84,9a bertakoa da eta % 15,1ak atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhileko portzentajea baino 0.7 puntu baxuagoa). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (% 45,1), Europar Erkidegokoak eta ez erkidegokoak (% 22,2) eta Afrika iparraldekoak (% 14,0).

Lehenengo hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopurua**ri dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 178.827 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 1.9 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 8,6 murriztu da kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdinak jarraitzen du: sinatutako kontratuen % 10,7 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 3,1 puntu altuagoa) eta % 89,3 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik % 37,8 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,0 puntu baxuagoa).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Bizkaian kontratuak % 9,5 murriztu dira, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; Gipuzkoan % 7,5 murriztu da kontratazioa eta Araban % 8,1 murriztu da. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (% 52,0; 93.020); jarraian, Gipuzkoa (% 29,3; 52.380) eta Araba (% 18,6; 33.427).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) manufaktura-industria (% 17,9); (ii) osasun-jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 14,4); (iii) merkataritza (% 13,0) eta (iv) garraioa eta biltegiratzea (% 10,1). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (% 26,8) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 23,4).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %11,1ekoa izan da eta enplegu tasa %49,8koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** % 49,8koa izan da (% 54,2 gizonezkoen kasuan eta % 45,8 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 929.200ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 4.400 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 485.400ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino % 0,2 gehiago) eta 443.800ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino % 1,2 gutxiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (% 76,3), 396.000 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (% 21,7), 39.700 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 45 urtetik gorakoena izan da (+% 1,1); jarraian 25-44 urte bitartekoena (-% 1,9) eta, azkenik, 24 urte azpikoena (-% 5,3).

Lurralde Historikoei dagokienez, Araba izan da enplegu tasarik handiena izan duena (% 51,5), jarraian Gipuzkoa (% 51,0) eta Bizkaia (% 48,6). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian bakarrik hazi da landunen pertsona kopurua (+% 0,1); Gipuzkoan eta Araban, aldiz, murriztu egin da (-% 0,6 eta -% 2,1, hurrenez hurren).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (% 72,3). Ondoren, Industria sektorea (% 21,5), Eraikuntza sektorea (% 5,6) eta Lehen sektorea (% 0,7).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen % 70,9k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta % 28,3k aldi baterako kontratuak. **Kontratuen partzialtasuna**ri dagokionez, kontratuen % 81,3 lanaldi osokoak izan dira eta % 18,4 lanaldi partzialekoak.

Lehenengo hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** % 11,1ekoa izan da (% 10,9 gizonezkoen artean eta % 11,3 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 115.700 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 3.900 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan % 7,8 murriztu da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan % 2,0 hazi da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (% 8,2); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (% 13,0) eta 16-24 urte bitarteko taldea (% 24,4). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan murrizketa handiena izan duen taldea 25-44 urte bitartekoena izan da (-% 4,7); 16-24 urte bitartekoen taldean % 4,5 murriztu da eta 45 urtetik gorakoen artean % 0,9.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (% 9,2), jarraian Araba (% 11,8) eta Bizkaia (% 12,1). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan hazkundea izan duen lurralde bakarra Araba izan da (+% 13,8); Gipuzkoan eta Bizkaian murrizketak izan dira (-% 4,9 eta -% 6,4, hurrenez hurren).

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen % 44,0k bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, % 28,5ek oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, % 27,5ek goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen % 73,6 bertakoak dira, atzerritarrak, beraz, % 26,4.